

AGINDUAK HOBETO BETEARAZTEKO
POLITIKA (BEST EXECUTION)
INBERTSIO ZERBITZUEN ARLOAN
KUTXABANK

Kutxabankeko Administrazio Kontseiluak 2016ko abenduaren 29an onartua.

Aurkibidea

1.	Sarrera	3
2.	Politikaren aplikazio-eremua	4
3.	Politikaren oinarrizko edukia	6
3.1.	Errenta aldakorra	6
3.2.	Eratorkiak merkatu antolatuetan	8
3.3.	Zor publikoa	12
3.4.	Finantza-aktiboen aldi bereko salerosketa	15
3.5.	Errenta Finko Pribatua (burtsakoa eta ez burtsakoa)	16
3.6.	Eperako dibisa	18
3.7.	OTC Eratorriak (<i>Over the counter</i>)	19
3.8.	Inbertsio-fondoak	30
4.	Bezeroei politikaren inguruko alderdien berri emateko prozedura	31
5.	Bezeroak politika onar dezan lortzea	32
6.	Politika bete egiten dela jagoteko ikuskapen eta kontroleko prozedurak	33
7.	Bezeroak eskatuz gero, aginduen betearaztea frogatzeari begira aintzat hartu beharreko printzipioak	34
8.	Politika honen berrikuspena eta eguneratzea	35

1. Sarrera

Balore Merkatuko Legeak (aurrerantzean “LMV”), bere 79. artikuluan dioen arabera, inbertsio-enpresek, bezeroen aginduak betearaztean, euren bezeroentzako ahal den emaitzarik onena lortzeko arazoizko neurri guztiak hartu behar dituzte. Politika honek, bere aldetik, Kutxabankek bere bezeroen aginduak betearaztean edo beste artekari batzuei igortzean bete beharko dituen baldintzak ezarriko ditu.

Politika inbertsio-zerbitzu bat ematen hasi aurretik, bezeroei jakinarazi beharko zaie.

Politika hau prestatzean eta bere egitura zehaztean, oinarrizko aldagai hauek hartuko dira kontuan:

- Kutxabankek bezeroen aginduak betearazteko edo igortzeko ematen duen zerbitzuak hartzen dituen finantza tresnen tipologia.
- Kutxabankek finantza-zerbitzuak emateko erabiltzen dituen betearazte-zentroak eta finantza-artekariak hautatzeko unean eragina duten irizpideei buruzko informazioa.
- Bezero motak.

Inbertsio Zerbitzuen Enpresei buruzko 217/2008 Errege Dekretuko (aurrerantzean Inbertsio Zerbitzuen Enpresei buruzko ED) 77. artikulua xedatzen duenez, erakundeek, bezeroen aginduak betearaztean, honako irizpide hauek hartu behar dituzte kontuan:

- Bezeroaren ezaugarriak, bezero xehekarria ala profesionala den ere zehaztuz.
- Bezeroaren aginduaren ezaugarriak.
- Agindu horren xede diren finantza-tresnen ezaugarriak.
- Agindua bideratu ahal zaien betearazte-zentroen edo artekarien ezaugarriak.

2. Politikaren aplikazio-eremua

2.1. Finantza-tresnak

Politika honen eduki diren arauak, honako finantza-tresna hauei ezardakizkieke:

- EA kotizatua (nazionala/nazioartekoa)
- Zor Publikoa
- Aldi berekoak
- Errenta Finko Pribatua
- Merkatu antolatuetan negoziatutako eratorriak
- Eperako Dibisa
- OTC eratorriak
- Partaidetzak norberaren IF
- Partaidetzak besteren IFtan (naz./ nazioart.)

Horiatarako guztietarako, Kutxabankek honako bi kokatze hauek definitu ditu aginduen betearazte-katean:

- Bezeroen aginduen hartzaile eta igorlearena: kasu honetan, aginduak beteko dituen /dituzten artekaria/k hautatu beharko da /dira.
- Bezeroen konturako agindu-betearazlearena, merkatuetan zuzenean nahiz aginduak bere zorro propioaren kontra betearazten dituenean.

Kokatze honen xehetasunak tresna bakoitzeko, honako hau da:

		KUTXABANKEN KOKAPENA	
		Betetzaileria	Igorlea
FINANTZA-TRESNA	EA kotizatua (nazionala /nazioartekoa)		✓
	Zor Publikoa	✓	✓
	Aldi berekoak	✓	
	Errenta Finko Pribatua	✓	✓
	Merkatu antolatuetan negoziatutako eratorriak	✓	✓
	Eperako Dibisa	✓	
	OTC eratorriak	✓	
	Partaidetzak norberaren IFetan		✓
	Partaidetzak besteren IFetan (naz./ nazioart.)		✓

Bezeroentzako betearazte hobea lortzeko helburu nagusiaz, Kutxabanken jokaera honako hau izango da:

- Kutxabankek betetzailerik diharduen kasuetan:
 - Merkatuko kide diharduenetan, betetze-zentroen hautatze egokia egingo du (bat baino gehiago dagoen kasuetan).
 - Bere kontua tartetzen duenetan edo bezeroa eta kontra alderdiaren arteko eragiketa zuzenean egiten duenetan, politika honetan xedatutakoa beteko du.
- Kutxabankek agindu igorle diharduenean, bitartekariak era egokian hautatuko ditu, politika honetan zehazten den bezala.

2.2. Bezeroak

Inbertsio Zerbitzuen Enpresei buruzko EDko 77.1 artikulua bezeroaren ezaugarriak kontuan hartu beharra xedatzen du betearazterik onenerako irizpide gisa, ezaugarri horietako bat bezeroaren kategoria — xehekaria edo profesionala — delarik. Era berean, 79 sexies artikulua dio xehekako bezeroen aginduak direnean, emaitzarik onena kontra-prestazio osoaren terminoetan zehaztuko dela.

- Xehekako bezeroen kasuan gailentzen den irizpidea "kontra-prestazio osoarena" izango da. LMVren 4. ataleko 79 sexies artikuluari jarraituz, emaitza ezin hobea zein den erabakitzerakoan, batez ere finantza-tresnaren prezioak eta betearaztearekin loturiko kostuek osatutako guztizko kontra-prestazioa hartuko da kontuan, kostuen barruan bezeroak aginduaren betearaztearekin zuzenean loturik bere gain hartu beharrekoak diren gastu guztiak sarturik, betearazte-zentroaren tasak, konpentsazio- eta likidazio-tasak, eta aginduaren betearaztean parte hartzen duten hirugarrenei ordaintzen zaizkien bestelako tasak barne.
- Bezero profesionalak izatera, xehekarien kasurako aipatutakoez gain, beste faktore batzuk ere hartu behar dira aintzat, hala nola kontratazio-bolumen handien ziozko betearazte-abiadura edo probabilitatea, esaterako.
- Kontra-alderdi hautagarri sailkapena duten bezeroak ez dira politika honen mende izango.

2.3. Politikaren aplikazio-eremutik baztertzea, bezeroen jarraibide zehazten kasuan

Bezero batek agindu bat non edo nola gauzatzea gura duen berriaz zehazten badu, eta bezeroaren jarraibideek lehen azaldu ditugun lehentasunetako baten bat aldaraziz gero, bezeroen jarraibideok izango dute lehentasuna, ahal den neurrian, Politika honetan bildutako alderdien aurretik, betiere, Kutxabankek bezeroaren berriazko jarraibideak betetzea ahalbidetzen dioten baliabideak eta betearazte-kanalak baldin baditu. Eragiketaren gainerako ezaugarriak buruz, jarraibiderik egon ezean, Politikan jasotako manuetatik aplikagarri direnei jarraituko zaie.

Horrelakoetan, bezeroari ohartarazi egingo zaio berak emandako berriazko jarraibideek eragina izan dezaketela Politika honetan definitutako betearazte-faktoreen eta estandarren betetzean. Edonola ere, Kutxabank ahalik eta emaitzarik onena lortzen saiatuko da, jarraibideoi lotuz.

3. Politikaren oinarrizko edukia

3.1. Errenta aldakorra

3.1.1. Kutxabanken kokapena

Horrelako tresnei dagokienez, Kutxabankek aginduen igorle gisa jarduten du, bera ez baita ezein Balore Burtsa nazional edo nazioartekotako kide. Hori dela eta, Kutxabankek horrelako merkatuetako kide diren artekari batzuk hautatuko ditu, aginduok gauzatu ditzaten, eta egokiena zein den erabakiko du.

Aukeratutako artekariak MiFIDek xedatzen duenaren arabera politikak ezarri beharko dute, betearazterik onena lortzeko begira.

Kutxabankek kontrako alderdi hautagarri diren bezeroen kategoria izango du hautatuko artekariari buruz; bezeroen aginduen igorpenari begira, ordea, artekariak babes guztiak eman beharko dizkio Kutxabanki, bezero xehekari biltzen, Kutxabankek, horrela, bere bezeroen aurrean, artekariak aginduen betearaztean darabilten politika justifikatu ahal izateko.

3.1.2. Artekarien hautaketa politika

Artekarien hautatzea, honako irizpide hauetan oinarrituta egingo da:

<p><i>Prezioa eta kostuak</i></p>	<p>Bezero xehekarien kasuan, babes-mailarik handiena duen kolektiboa denez, eragiketaren prezioa eta kostu gehigarriak izango dira balizko betearazte-zentroak edo artekariak aukeratzekoan gehien erreparatuko zaion faktorea.</p> <p>Tresnaren prezioari dagokionez, arrazoizkotzat jotzen den prezio-tartea ebaluatu ahal izango da.</p> <p>Bezeroak jasan behar dituen kostuak ebaluatzeko, berriz, eragiketen simulazioak egingo dira, artekariak jardutera nahiz betearazte-zentro batek zuzenean diharduenean, aukerarik</p>
<p><i>Prestigioa</i></p>	<p>nuragarriena zein den ebazteko.</p> <p>Balizko zentro eta artekarien azterketa egiterakoan, besteak beste, merkatuan pisu nabaria duten eta kalitate handiko zerbitzuak eskaintzen dituzten taldeetako erakundeak bilatuko dira.</p>
<p>Merkatu-bolumen handienekoak</p>	<p>olumen handienak kudeatzen dituzten zentroak eta artekariak hautatuko dira.</p>
<p><i>Betearazteko eta likidazioko eraginkortasuna</i></p>	<p>Eragiketak eraginkortasunez eta gorabeherak minimizatuz betearazte eta likidatzea.</p>
<p><i>Sistema teknologiko ezin hobeak</i></p>	<p>Kutxabanken sistemakiko bateragarritasuna.</p>

O

B

3.1.3. Hautatutako artekarien berrikusketa

Urtean behin, behintzat, edo bere aldaketa eskatzen duten aldaketak gertatu direnean, ordura arte erakundeak erabilitako artekariak berrikusiko ditu Kutxabankek, eta Betearazte hoberenaren politika beteko dela bermatu behar du, bezeroengandik jasotako aginduetan.

Berrikusketak, egiten den unea edozein delarik ere, artekarien hautatze politiketan aipatutako irizpideak betetzen direla egiaztatzea izango du helburu, eta ardura duen atalak egindako dokumentu batean jaso beharko da. Aipatutako dokumentu horrek, honako arlo hauek jasoko ditu, besteak beste:

- Artekariak izan daitezkeen aurre-hautaketa bat egiteko erabilitako irizpideak.
- Artekariaren azken hautaketarako arrazoiak.

3.2. Eratorriak merkatu antolatuetan

3.2.1. Kutxabanken kokapena

Tresna-multzo horri dagokionez, Kutxabankek betearazle nahiz igorle gisa jardun dezake, eratorriak kontratatzen diren merkatuaren arabera:

- Eurex merkatuan kontratatutako eratorrien kasuan, Kutxabankek betearazle-zereginak betetzen ditu, merkatu horretako kide da eta. Tresna hauen kontrataziorako betearazte zentro bakarra dagoenez, ez da egokia aurre-hautaketa bat egitea; Eurex da merkatu posible bakarra.
- Gainontzekoetan, Kutxabankek igorle gisa jarduten du, agindua jaso eta merkatu horietako kide den artekari bati igortzen baitio, horrek zuzenean gauzatu dezan. Horretarako, Kutxabankek zenbait artekari alternatibo hautatuko ditu, aginduak bidaltzeko eta egokiena zein den erabakiko du. Aukeratutako artekariak MiFIDek xedatzen duenaren araberrako politika ezarri beharko dute, betearazterik onena lortzeari begira. Kutxabankek kontrako alderdi hautagarri diren bezeroen kategoria izango du hautatuko artekariari buruz; bezeroen aginduen igorpenari begira, ordea, artekariak babes guztiak eman beharko dizkio Kutxabanki, bezero xehekari bailitzan, Kutxabankek, horrela, bere bezeroen aurrean, artekariak aginduen betearaztean darabilten politika justifikatu ahal izateko.

3.2.2. Negoziazio Zentroen/Artekarien hautaketapolitika.

- Negoziazio Zentroen/Artekarien hautaketa esku hartzen duten faktoreak.

Merkatu baten kalitatea zehazten duten faktore identifikatu nagusiak, honako hauek dira:

	Bolumen handiko transakzioak arin betearazteko ahalmena, prezioetan	e
	ra esanguratsuan eragin barik.	M
<i>Merkatuaren likidezia</i>	erkatuan Bizirik dagoen kontratu kopurua, alderantzizko eragiketaz itxi ez direnak.	
<i>Kokapen irekia</i>	Aginduen kopuru nahikoa prezio desberdinetan, bertan era sendoan aldaketak eginda, hegazkortasuna esanguratsu murriztuta.	
<i>Merkatuaren sakontasuna</i>		
<i>Eraginkortasuna prezioak eratzean</i>	Eskura dagoen informazio guztia prezioetan arin sartzeko ahalmena.	I
<i>Sartzeko askatasuna</i>	nbertsioegileek merkatuan sartzeko askatasuna, ematen zaien tratua bidezkoa izan dadin eta ez baztertzaila.	
<i>Merkatuaren osotasuna</i>	Merkatuaren segurtasuna. Sistema arriskudun merkatu librea	B
<i>Babesa inbertsiogileei</i>	abesa iruzurraren aurrean eta merkatuaren gehiegizko praktiken aurrean	
<i>Kostu transakzionalak</i>		



kutxabank
T

ransakzioa
ri
datxezkion

ostuak, esaterako, prezio tartean, sarrera kostuak, beste anekdotak, Agindun Hobe eta Betearazteko Politika, Sarrera Kostuak, beste anekdotak, batzuei ordaindu zaizkien komisioei dagozkien kostu esplizituak, baloreen betearazte eta likidazio kostuak.

Eragiketen likidazioa

Sarrera askeko likidazio zentroak eta mekanismoak existitzea.

k

- Aginduak betearazteko zentro berria ebaluatzeke ezarritako lehentasunak

- Merkatu arautuak eta negoziazio sistema aldeaniztunak

Erorrien Artekaritza Merkatu Antolatuetan jardueran aginduak betearazteko zentro berri bat sartuko den ala ez ebaluatzeke orduan, Erakundeak lehen identifikatutako faktoreak baloratuko ditu, lehentasun hauen arabera:

<i>Merkatuaren likidezia eta Transakzio-bolumena</i>	<p>Balore batekiko edo balore talde batekiko honako aldagai hauek betetzen dituzten Merkatu Arautuak edo negoziazio Sistema Aldeaniztunak hartuko dira aintzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontratu negoziazio bolumen onargarria. - Transakzio kopuru onargarria. <p>Gainera, merkatuaren sakontasun onargarria izan beharko dute, prezio-tartea nahikoa izan dadin, aginduak aldi berean bideratu ahal izateko,</p>
<i>Kokapen irekia</i>	<p>prezioak indargabetu barik.</p> <p>Balore baten kokapen irekiak betearazte zentro berri batean, Betearazte Zentro taldearen kokapen ireki globalaren %25aren berdina edo</p>
<i>Eragiketen likidazioa</i>	<p>handiagoa izan behar du</p> <p>Negoizazio Zentro berriek transakzioen likidazio zuzena bermatu beharko dute, likidazio-sistemei atxikita izanda edo Erregistro erreferentzien (existituko balira) likidazio eta kontrol mekanismo nahikoa izanda, horietan betearazteko eragiketei buruz.</p>
<i>Kostu transakzionalak</i>	<p>Kutxabankek alde aurretik hautatutako negoziazio zentroekin alderatuta, kostu transakzionalak "Hautatutako negoziazio eta betearazte zentroak" puntuan hautatutako negoziazio Zentroen berdina edo txikiagoak izan beharko dute, horrela transakzio kostua murriztagoa izan dadin bezeroarentzat.</p>
<i>Gardentasuna</i>	<p>Merkatu Arautuak edo Negoizazio Sistema Aldeaniztunak izan beharko dute, Inbertsiogileei Babesa emateko neurri egokiak dituztenak, Organismo Eskudunen gainbegiratzearen bidez.</p>
<i>Sarrera askea</i>	<p>Merkatu Arautuak edo Negoizazio Sistema Aldeaniztunak izan beharko dute, inbertsiogileentzako sarrera erraza dutenak, horiei trataera ez baztertzaila erraztuz.</p>

- Inbertsio Zerbitzuak ematen dituzten erakundeak

"Atxikimendu kostua" eta "Merkatu zehatz batean jarduteko bezeroek ekarritako negozio bolumena" horien arteko harremana dela eta, erakundeari merkatu horri atxikitzea komeni ez bazaio, merkatu horri atxikita dauden beste artekari batzuei igorriko dizkie bezeroen aginduak erakundeak.



kutxabank

Artekari horien hautaketa honako irizpide hauen arabera egingo da:

Aginduak Hobeto Betearazteko Politika

<i>Prezioa</i>	Agindua betearaztean, Erakundeak hautatu dituen artekarien artean, prezio tarte onargarria izan dadila bilatuko da. Presentzia Merkatuetan, Kutxabankkide ez dutenetan, behintzat. Bezeroen
<i>Profesionaltasuna</i>	aginduak betearazteko ahalmena Gorabeherak konpontzeko ahalmena Aginduak bideratzeko arintasuna
<i>Transakzio kostua</i>	Artekarien bidez betearazitako transakzioen kostua (Merkatu Kanonak, likidazio kostuak, broker komisioa)
<i>Ospea, kaudimena eta arrisku politika</i>	Kutxabankek lehen mailakoak diren eta kaudimen bermatua duten erakundeekin egingo du lan, bezeroak onartzeko bere politikan ezartzen diren irizpide berberak aplikatuz.
<i>Homogeneotasuna betearazte hobereneko politikan</i>	Artekariak ezartzen duten Betearazte hoberenaren politikak Kutxabanke bere bezeroei ezartzen dien betearazte hoberenaren politika berbera aplikatzea ahalbidetzeko beharrezko eskakizunak bete beharko ditu

3.2.3. Negoziazio Zentroak Berrikustea.

Aldatzea galdatzen duten aldaketak gertatzen direnean, Kutxabankek berrikusi egingo ditu erakundeak data horretara arte erabilitako Negoziazio Zentroak, eta bermatu egin beharko du bezeroek igorritako aginduetan Betearazte Hoberenaren Politika betetzen dela.

Berrikusketa, berdin da noiz egiten den, Negoziazio Zentroen hautaketa politiketan aipatutako irizpideak betetzen diren egiaztatzea izango du helburu.

3.2.4. Aginduak betearazteko politika

- Bezeroek igorritako aginduetan Betearazte Hoberenaren Politika ezartzean esku hartzen duten eragileak

Bezeroek igorritako aginduen betearazte Hoberenean esku har dezaketen eragile nagusiak honako hauek dira:

<i>Prezioa</i>	Agindua betearaztean, Erakundeak hautatu dituen artekarien artean, prezio onena.
<i>Kokapen irekia</i>	Une bakoitzean bizirik dagoen kontratu kopurua.
<i>Kostu transakzionalak</i>	Produktuari lotutako kostu murriztagoak, operazioaren kontratazio eta likidazio kontzeptuean, Erakundeak hautatu dituen artekarien artean.

*Arintasuna betearaztean**Arintasuna aginduak merkatura helaraztean.*

<i>Eraginkortasuna betearaztean eta likidazioan</i>	Bezeroaren eragiketaren amaiera zuzena bermatzen duten betearazte eta likidazio mekanismoak izateko ahalmena.
<i>Bolumena</i>	Aginduaren bolumena, agindu hori merkatuan bezeroarentzako baldintza onenetan betearazi dadin dagoen probabilitatea zehazten duen eragilea den aldetik.
<i>Eragiketaren izaera</i>	Errenta aldakorrerako baloreen erosketa edo salmenta dela ulertuta.
<i>Aginduaren ezaugarriak</i>	Bezeroaren aginduen jardunbide zehatzak eta bereziak.

- **Betearazte hoberenaren politika**

Oro har, bezero batek erakundeari igorri dion agindu baten "betearazte hobereana" dela ulertzen da, Kutxabanke bezeroarentzako ahalik eta baldintza onenetan burutzen duen betearaztea, une oro agindua igorri duenarentzako emaitzarik onena lortzeko helburuz, Kutxabanke argitaratu duen aginduak betearazteko politikan zehaztutako printzipioei jarraiki eta erakundeak hautatu dituen betearazte zentroen artean.

Agindua merkatuan betearazi baino lehen, Kutxabanke bezeroarentzako emaitzarik onena egiaztatuko du, Kutxabanke hautatutako zentro bakoitzaren gainean eta emaitzarik onena lortu duen zentrori agindua.

Erakundearen bezeroek jarraibide zehatzez igorritako aginduen "betearazte hobereana" dela ulertuko da, Erakundeak bezeroaren jarraibide zehatzei jarraiki burutu duen agindua, erakundeak hautatu dituen betearazte zentroen artean, hautaketa politikaren arabera.

Helburu horretarako, jarraibide zehatzak izango dira, bezeroak ematen duen edozein agindu, balorearen prezioari buruz, agindua nola bete, agindua merkatuan noiz bete eta bezeroak zein zentrotan nahi duen bete dadila agindua.

Kasu hauetan, Kutxabanke, une oro, bezeroak emandako jarraibide bereziei jarraiki betearaziko du agindua, emaitzarik onena lortzeko helburuari jarraiki.

Oro har, honako arau hauek ezartzen dira, betearaztean dagoen lehentasunari dagokionez:

Aginduaren jasotze bide bakoitzari dagokionez:

- a) Bezeroak emandako aginduaren jarraibide bereziak
- b) Bide bakoitzean eta bezeroak emandako aginduaren ezaugarrien arabera, prezio onena hartuko da betearazte unean (baxuena erosketetan eta altuena salmentetan)
- c) Agindu batean prezio berdina eta ezaugarri berdina badira aginduaren jasotze-data zaharrena aplikatuko da
- d) Bezeroek bidalitako aginduek lehentasuna izango dute norberaren kontura emandako aginduen aldean

Inoiz ez dira sartuko transakzioan Kutxabanke kobratutako komisioak, kontzeptua edozein delarik ere.

3.3. Zor publikoa

Tresna-talde honetarako egoera bi ager daitezke, betetzailerik edo igorle jardutea.

Kutxabank igorlea da, SEND merkatuan egiten diren eragiketen kasuan, beraz, merkatu honetako kide diren artekari bat edo batzuk hautatuko dira.

Artekarien hautaketa eta berrikusketari dagokionez, Errenta Aldakorreko aginduetarako aurreikusita dagoena hartuko da aintzat.

Gainontzeko eragiketarako, betetzailerik aritu da, bere kontu propioaren bidez nahiz eragiketa zuzenean bezeroa eta kontra alderdiaren artean eginez, jarraian deskribatzen diren prozeduren arabera.

3.3.1. Altxorraren letrak

3.3.1.1. Negoiazio eta betearazte zentroak

Bezeroek altxorraren letren gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabanke, honakoa Negoiazio zentro hauetan:

- Altxorraren Letren Lehen Mailako Merkatua Espainiako Bankuan.
- Negoiazio sistema aldeaniztunak.
- Internalizatzaile diharduten beste kreditu erakunde batzuk eta baliabide desberdinetan prezioak kotizatzen dituztenak.
- Erakundeak baimendutako merkatu brokerrak .

3.3.1.2. Negoiazio zentroak hautatzeko politika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrekin jardun dezake Kutxabanke.

3.3.1.3. Betearazte hoberenaren politika

Altxorraren Letren erosketarako edo salmentarako bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak, berdina da agindua zein bidetik jaso den.

Altxorraren Letren bezeroak emandako aginduen betearazte hobereana dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskaini diezaikeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatu.

3.3.1.4. Prezioak eratzeko politika.

Altxorraren Letren kotizazio-prezioa erabilitako honako euskarri hauen bidez burutuko da:

- Finantza Plataformak
- Norberak egindako kalkulagailuak

Erakundeak honako prozedura huen bidez lortuko du kotizazio prezioa:

- Eragiketa epealdiari dagokion Euriborraren eskaintza eta eskaera datuen kaptura.
- Lortutako prezioari egoki irizten zaizkien doiketak egingo zaizkie.

Kutxabankek prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat, horiek hala eskatuta.

3.3.2. Epe Luzeko Zor Publikoa

3.3.2.1. Negoziazio eta betearazte zentroak

Bezeroek Zor Publikoaren gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabankek, honakoa Negoziazio zentro hauetan, agindua edozein bidetik jasotzeko delarik ere:

- Negoziazio sistema aldeaniztunak.
- Internalizatzaile diharduten beste kreditu erakunde batzuk eta baliabide desberdinetan prezioak kotizatzen dituztenak.
- Erakundeak baimendutako merkatu brokerrak .

3.3.2.2. Negoziazio zentroak hautatzeko politika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrekin jardun dezake Kutxabankek.

3.3.2.3. Betearazte hoberenaren politika

Zor Publikoaren erosketarako edo salmentarako bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak.

Zor Publikoaren bezeroak emandako aginduen betearazte hobereana dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskain diezaiekeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatu.

3.3.2.4. Prezioak eratzeko politika.

Kotizazio-preziora honako prozedura hauen bidez lortuko du Erakundeak:

- Etorkizunen eskaintza eta eskaera prezioen kaptura, bono alemaniarren gainean, 2, 5, 10 eta 30 urteko epealdietan.
- Etorkizun alemaniarren azpiko bono emangarrien eskaintza eta eskaera prezioen kaptura (*Cheapest to Deliver*), 2, 5, 10 eta 30 urteko epealdietan.
- Kurbako epealdi guztietan kotizatzen duten bono nazionalen ISINa
- Etorkizun alemaniarren azpiko bono emangarrien TIRak lortzea (Eskaintza eta Eskaera) (*Cheapest to Deliver*), 2, 5, 10 eta 30 urteko epealdietan.
- Kurbako epealdi guztietan kotizatzen duten bono nazionalen TIRak lortzea
- Erreferentzia alemaniarren eta erreferentzia espainiarren TIRen arteko *spreads* delakoak lortzea.

- Erakundeak doiketak egin ditzake eskuz kalkulaturako *spreads*-etan
 - Interes-tasen kurba lortzea, interes-tasen kurba alemaniarra eta lortutako *spreads* direlakoak gehituta (eskaintza eta eskaera).
 - Lortutako prezioari egoki irizten zaizkien doiketak egingo zaizkio.
- Kutxabankek prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat, horiek hala eskatuta.

3.4. Finantza-aktiboen aldi bereko salerosketa

3.4.1. Kutxabanken kokapena

Mota honetako produktueterako Kutxabank betearazlea da, eta erosketari edo salmentari buruzko bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu.

3.4.2. Negoziazio eta betearazte zentroak

Bezeroek Aldi berekoen gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabanke, honakoa Negoziazio zentro hauetan:

- Negoziazio sistema aldeaniztunak.
- Internalizatzaile jardunez, medio desberdinetan prezioak kotizatzen dituzten beste kreditu-erakunde batzuk.
- Erakundeak baimendutako merkatu brokerrak.

3.4.3. Negoziazio zentroak hautatzeko politika

Bezeroek Aktiboen Aldi bereko Salerosketari lotuta egiten dituzten erosketarako edo salmentarako aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak, agindua edozein bidetik jasodelarik ere

Aktiboen Aldi bereko Salerosketako bezeroak emandako aginduen betearazte hoberena dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskain diezaiekeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatua.

3.4.4. Prezioen kotizazio politika

Kotizazio-preziora honako prozedura hauen bidez lortuko du Erakundeak:

- Eragiketa epealdiari dagokion Euriborraren eskaintza eta eskaera datuen kaptura.
- Aldi berekoaren preziora lortzea, aldi berekoen merkatuaren *spread* eskuz sartuta .

Kutxabanke prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat, horiek hala eskatuta.

3.5. Errenta Finko Pribatua (burtsakoa eta ez burtsakoa)

3.5.1. Kutxabanken kokapena

Burtsako errenta finko finantza-tresnetarako, Kutxabankek aginduen igorle-eginkizuna betetzen du, bera ez delako ezein Balore Burtsa nazional edo nazioartekotako kide. Hori dela eta, Kutxabankek horrelako merkatuetako kide den artekari bat edo batzuk hautatuko ditu, aginduok gauzatu ditzaten.

Artekarien hautaketa eta berrikusketari dagokionez, Errenta Aldakorreko aginduetarako aurreikusita dagoena hartuko da aintzat.

Burtsakoa ez den errenta finkoaren kasuan, Kutxabank igorlea da, SEND eta MARF merkatuan egiten diren eragiketen kasuan, beraz, merkatu honetako kide diren artekari bat edo batzuk hautatuko dira.

Artekarien hautaketa eta berrikusketari dagokienez, Errenta Aldakorreko aginduetarako aurreikusita dagoena hartuko da aintzat.

Burtsakoa ez den errenta finkoaren gaineko gainontzeko eragiketarako, betetzaileritu da, bere kontu propioaren bidez nahiz eragiketa zuzenean bezeroa eta kontra alderdiaren artean eginez, jarraian deskribatzen diren prozeduren arabera.

3.5.2. Negoziazio eta betearazte zentroak

Bezeroek errenta finko pribatuaren gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabankek, honakoa Negoziazio zentro hauetan:

- Igorlea.
- Internalizatzaile jardunez, medio desberdinetan prezioak kotizatzen dituzten beste kreditu-erakunde batzuk.
- Erakundeak baimendutako merkatu brokerrak.

3.5.3. Negoziazio zentroak hautatzeko politika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrekin jardun dezake Kutxabankek.

3.5.4. Betearazte hoberenaren politika

Errenta Finko Pribatuaren erosketarako edo salmentarako bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak.

Zor Publikoaren bezeroak emandako aginduen betearazte hobereana dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskain diezaiekeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatu.

3.5.5. Prezioak eratzeko politika

Arrazoizko balioan preziorik onena zein den ezagutzeko helburuz, jarduleak beharrezko irizten dien merkatuko prezioei buruzko galderak burutzen ditu, eta ez dago mugarik kontsultatzeko kontra-alderdi kopuruari dagokionez.

Lortutako prezioari egoki irizten zaizkien doiketak egingo zaizkio.

Kutxabankek prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat, horiek hala eskatuta.

3.6. Eperako dibisa

3.6.1. Kutxabanken kokapena

Mota honetako produktuetarako Kutxabank betearazlea da, eta erosketari edo salmentari buruzko bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu.

3.6.2. Negoziazio eta betearazte zentroak

Bezeroek Eperako Dibisaren gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabanke, honakoa Negoziazio zentro hauean:

- Internalizataile diharduten kreditu-erakundeak.
- Erakundeak baimendutako merkatubrokerrak.

3.6.3. Negoziazio zentroak hautatzeko politika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrekin jardun dezake Kutxabanke.

3.6.4. Betearazte hoberenaren politika

Eperako Dibisaren erosketarako edo salmentarako bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak.

Eperako Dibisaren bezeroak emandako aginduen betearazte hobereana dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskain diezaiekeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatua.

3.6.5. Prezioak eratzeko politika.

Eperako Dibisaren eragiketa bat (*FX forward*) eskudirutan egindako eragiketa (*FX Spot*) eta *FX Swapen* arteko konbinazio gisa kotizatzen da. Prezioen kotizazioa spot tipo bat gehi *swap* puntuen bidez egiten da, eragiketaren epealdian.

Lortutako prezioari egoki irizten zaizkien doiketak egingo zaizkio.

Kutxabanke prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat, horiek hala eskatuta.

3.7. OTC Eratorriak (*Over the counter*)

Mota honetako produktueterako Kutxabank betearazlea da, eta erosketari edo salmentari buruzko bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu.

3.7.1. *Forward Rate Agreement (FRA)*

3.7.1.1. Negoziazio eta betearazte zentroak

Bezeroek FRA gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabankek, honakoa Negoziazio zentro hauetan:

- Kreditu-erakundeak.
- Erakundeak baimendutako merkatu brokerrak .

3.7.1.2. Negoziazio zentroak hautatzeko politika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrekin jardun dezake Kutxabankek.

3.7.1.3. Betearazte hoberenaren politika

FRA direlakoen erosketarako edo salmentarako bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak.

FRA direlakoen bezeroak emandako aginduen betearazte hoberena dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskain diezaiekeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatua.

3.7.1.4. Prezioak eratzeko politika.

Kotizazio-preziora honako prozedura hauen bidez lortuko du Erakundeak:

- *Call Money Swaps* tipoak kapturatzea (eskaintza eta eskaera) Eoniaren kontra, egun 1eko, aste 1eko eta hilabete 1eko epearako.
- *Swaps* tipoak kapturatzea (eskaintza eta eskaera) hilabete 1erako Euribor-aren kontra (FRArako eurotan) eta hilabete 1eko Libor-aren kontra (FRArako Dolar dibisa eta Libra dibisa).
- *Swaps* tipoak kapturatzea (eskaintza eta eskaera) hilabete 1erako Libor-aren kontra FRArako Libra dibisan, 9 eta 12 hilabeteko epealdietarako.
- *Liffe* Merkatuko etorkizunak gurutzatzearen azken prezioaren kaptura, 3 hilabeteko Euribor-aren gainean (FRArako eurotan) eta 3 hilabeterako Libor-aren gainean (FRArako Dolar dibisan), hurrengo 8 muga eguneratzeetarako (hurbilena kontatu barik).
- *Swaps* tipoak kapturatzea 6 hilabeteko Euribor-aren kontra (FRArako eurotan) eta 6 hilabeteko Libor-aren kontra (FRArako Dolar dibisan eta Libra dibisan), 2 urtetik 50 urtera arteko epealdian.
- Aurreko interes-tasa iturri desberdinetan oinarrituta, egun 1etik 50 urte arteko interes-tasaren kurba lortzen da, dibisa bakoitzerako.
- Prezioa (tasa finkoa) FRA atal bakoitzaren balio presente inplizitua berdintzean lortzen da, eskatutako epealdirako.

Lortutako prezioari egoki irizten zaizkien doiketakegingo zaizkio.

Kutxabankek prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat, horiek hala eskatuta.

3.7.2. OTC PLAIN VANILLA aukerak

3.7.2.1. Negoziazio eta betearazte zentroak

Bezeroek OTC *Plain Vanilla* Aukeren gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabankek, honakoa Negoziazio zentro hauetan:

- Kreditu-erakundeak.
- Erakundeak baimendutako merkatubrokerrak.

3.7.2.2. Negoziazio zentroak hautatzeko politika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrekin jardun dezake Kutxabankek.

3.7.2.3. Betearazte hoberenaren politika

OTC *Plain Vanilla* Aukeren erosketarako edo salmentarako bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak.

OTC *Plain Vanilla* Aukeren bezeroak emandako aginduen betearazte hobereana dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskain diezaiekeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatua.

3.7.2.4. Prezioak eratzeko politika.

Azpikoaren arabera, kotizazio prozedura desberdinei jarraituko zaie:

- Errenta Aldakorreko *Plain Vanilla* Aukerak:
 - Dibidendu mailaren kaptura, Bloomberg bidez edo finantza bitartekarien azterketen bidez.
 - Euroaren interes-tasaren *depo-swap Mid* kurbaren kaptura.
 - Aukeraren azpikoaren azken prezio kotizatuaren kaptura.
 - Azpikoaren Merkatu Antolatuen aukeren eskaintza eta eskaera prezioen kaptura, LIFE Merkatuan.
 - Aurreko datuen arabera, hegazkortasun matrizea sortzen da eskatutako aukerarako.
 - Aukeraren prezioa aurreko inputen arabera zehazten da eta *Black & Scholes* metodoa erabiliz aukera Europarretarako, eta Binomiala (*Cox Ross-Rubinstein*) Amerikarretarako.
- OTC *Plain Vanilla* Aukerak interes-tasen gainean (*Caps & Floors*):
 - *Call Money Swaps* tipoak kapturatzea (eskaintza eta eskaera) Eoniaren kontra, egun 1eko, aste 1eko eta hilabete 1eko epetarako.

- *Swaps* tipoa kapturatzea (eskaintza eta eskaera) hilabete 1erako Euribor-aren kontra, 2, 3 eta 6 hilabeteko epealdietarako.
- MM.AA. etorkizunak gurutzatzearen azken prezioaren kaptura, 3 hilabeteko Euribor-aren gainean, hurrengo 8 muga eguneratzeetarako (hurbilena kontatu barik).
- *Swap* tipoa kapturatzea 6 hilabeteko Euribor-aren kontra, 2 urtetik 50 urtera arteko epealdirako.
- Hegazkortasun inplizituen kurba kapturatzea (*smilez*) *strike* desberdinetarako.
- Hegazkortasun kurban oinarrituta, *strike* bereziko hegazkortasuna kurba sortuko da, lortunahi den *strike* bereziko.
- Aurreko interes-tasa iturri desberdinetan oinarrituta, egun 1etik 50 urte arteko interes-tasaren kurba lortzen da, Euroaren gainean.
- *Cap* edo *Floor* delakoari aplikatzeko hegazkortasun inplizituen kalkulua (*caplets* eta *floorets* guztietarako, hurrenez hurren) eta prezioalortzen du, *Black-Scholes* metodoa erabiliz.

Lortutako prezioari egoki irizten zaizkien doiketak egingo zaizkio.

Kutxabankek prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat, horiek hala eskatuta.

3.7.3. OTC Exotikoak Aukerak

3.7.3.1. Negoziazio eta betearazte zentroak

Bezeroek OTC Exotikoak Aukeren gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabanke, honakoa Negoziazio zentro hauetan:

- Kreditu-erakundeak.
- Erakundeak baimendutako merkatu brokerrak.

3.7.3.2. Negoziazio zentroak hautatzeko politika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrekin jardun dezake Kutxabanke.

3.7.3.3. Betearazte hoberenaren politika

OTC Exotikoak Aukeren erosketarako edo salmentarako bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak.

OTC Exotikoak Aukeren bezeroak emandako aginduen betearazte hoberena dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskain diezaiekeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatu.

3.7.3.4. Prezioak eratzeko politika.

Interes-tasen gaineko aukera exotikoak:

Eragiketa motaren arabera, kotizazioa bieratara egingo da:

- Aukera Digitalak (Aukera horietan erosleak kopuru finkoa jasotzen du (edo aktiboa) aukeraren eskubidea betearaziz gero)
 - Prezioen kotizazioa egiteko, bezeroak honako informazio hau emango dio jarduleari:
 - o Nozionala
 - o Interes-tasen erreferentzia
 - o Interes-tasen finkatze-tasa (Hasiera / Amaiera)
 - o Ordainketaren maiztasuna
 - o *Fixing*-aren maiztasuna
 - o Interes-tasen kalkulu-oinarria
 - o *Cap/Floor Spread*-aren muga eguneratzea
 - o *Cap/Floor* maila
 - Aurreko datuak eskuz kapturatu ostean egiten da prezioen kotizazioa, interes-tasa mota biren arteko diferentziaz (*Caps* edo *Floors* bi), honako prozedura honi jarraiki:
 - o *Call Money Swaps* tipoa kapturatzea (eskaintza eta eskaera) Eoniaren kontra, egun 1eko, aste 1eko eta hilabete 1eko epe tarako.
 - o *Swap* tipoa kapturatzea (eskaintza eta eskaera) hilabete 1erako Euribor-aren kontra, 2, 3 eta 6 hilabeteko epealdietarako.
 - o Merkatu Antolatuen etorkizunak gurutzatzearen azken prezioaren kaptura, 3 hilabeteko Euribor-aren gainean, hurrengo 8 muga eguneratze tarako (hurbilena kontatu barik).
 - o *Swaps* tipoa kapturatzea 6 hilabeteko Euribor-aren kontra, 2 urtetik 50 urtera arteko epealdietarako.
 - o Hegazkortasun inplizituen kurba kapturatzea (*smilez*) *strike* desberdinetarako.
 - o Hegazkortasun kurban oinarrituta, *strike* bereziko hegazkortasuna kurba sortuko da, lortu nahi den *strike* bereziko.
 - o Aurreko interes-tasa iturri desberdinetan oinarrituta, egun 1etik 50 urte arteko interes-tasaren kurba lortzen da, Euroaren gainean.
 - o *Cap* edo *Floor* delakoari aplikatzeko hegazkortasun inplizituen kalkulua (*caplets* eta *florets* guztietarako, hurrenez hurren) eta prezioa lortzen du, *Black-Scholes* metodoa erabiliz.
 - o Lortutako prezioari egoki irizten dizkion doiketak egin diezazkioke jarduleak.
- Aukera Ez Digitalak – Dibisen gaineko aukera exotikoak

OTCFX aukeren jarduleak erabil ditzakeen prezioen kotizaziorako prozedurak (exotikoak), dibisa, bolumena, epea eta merkatuko beste baldintza batzuen arabera, honako hauek dira:

- o Banku Plataformei egindako eskaeren bidez.
- o Beste kontra-parte eta broker batzuei egindako eskeren bidez.
- o Kalkulagailu bereziak.

Kalkulagailuen bidezko kotizaziorako beharrezko eremuak honako hauekin bat datoz:

- o Dibisa parearen Spottasa.
- o Eragiketaren hegazkortasun inplizitua.
- o Interes-tasaren kurba, 12 hilabeteko epera arte, dibisa bakoitzerako.
- o Kutxabankek egoki irizten dion beste doiketa burutu dezake eskuz, aurreko input bakoitzean.

-Aukera Ez Digitalak – Errenta aldakorrarengaineko aukera exotikoak

Honako prozedura honi jarraitzen zaio:

- o Dibidendu mailaren kaptura, merkatu plataformen bidez edo finantza bitartekarien azterketen bidez.
- o Oinarrizko datuen kaptura (merkatu datuak).
- o Euroaren interes-tasaren *depo-swap Mid* kurbaren kaptura.
- o Aukeraren azpikoaren azken prezio kotizatuaren kaptura.
- o Azpikoaren Merkatu Antolatuen aukeren (eskaintza eta eskaera) prezioen kaptura.
- o Aurreko datuen arabera, hegazkortasun matrizea sortzen da eskatutako aukerarako.
- o Aukeraren prezioa aurreko inputen eta jarduleak erabakitako balorazio metodoen arabera zehazten da.

Kutxabankek prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat, horiek hala eskatuta.

3.7.4. CALL MONEY SWAP

3.7.4.1. Negoziazio eta betearazte zentroak

Bezeroek *Overnight Indexed Swaps* gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabankek, honakoa Negoziazio zentro hauetan:

- Kreditu-erakundeak.
- Erakundeak baimendutako merkatu brokerrak.

3.7.4.2. Negoziazio zentroak hautatzeko politika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrakin jardun dezake Kutxabankek.

3.7.4.3. Betearazte hoberenaren politika

Call Money Swaps direlakoei buruzko bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak.

Overnight Indexed Swaps bezeroak emandako aginduen betearazte hobereana dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskaini diezaiekeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatu.

3.7.4.4. Prezioak eratzeko politika.

Erakundeak prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat:

- Barnean, Euro (EUR), Dolar (USD) eta Libra (GBP) dibisetarako.
- Beste kontra-partida, broker eta finantza-plataforma batzuen bidez, dibisa guztietarako.

Erakundeak barnean kotizatzen baditu prezioak, prozedura honako hau izango da:

- Eskaintza eta eskaera *Call Money Swaps* interes-tasen kaptura, Eoniaren gainean, aste batetik 36 hilabetera arteko epealdietarako.
- *Call Money Swap* kurbaren eskaintza eta eskaera prezioen kaptura, hilabete 1era arteko epealdirako, dibisa bat edo birako.
- Merkatu prezioak *swaps* prezio kurbarekin (IRS) egiaztatzea, dibisa bat edo birako.
- Erakundeak *spread* doiketak egingo ditu eskuz, lortutako interes-tasetan.

Kutxabankek prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat, horiek hala eskatuta.

3.7.5. INTEREST RATE SWAP (IRS)

3.7.5.1. Negoziazio eta betearazte zentroak

Bezeroek *Interest Rate Swap* gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabankek, honakoa Negoziazio zentro hauetan:

- Kreditu-erakundeak.
- Erakundeak baimendutako merkatu brokerrak.

3.7.5.2. Negoziazio zentroak hautatzeko politika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrakin jardun dezake Kutxabankek.

3.7.5.3. Betearazte hoberenaren politika

Interest Rate Swap direlakoei buruzko bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak.

Interest Rate Swap bezeroak emandako aginduen betearazte hobereana dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskain diezaiekeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatua.

3.7.5.4. Prezioak eratzeko politika.

- *Interest Rate Swaps* Eurotan
 - o *Call Money Swap* tipokoak kapturatzea (eskaintza eta eskaera) Eoniaren kontra, egun 1eko, aste 1eko eta hilabete 1eko epetarako.
 - o *Swaps* tipokoak kapturatzea (eskaintza eta eskaera) hilabete 1erako Euribor-aren kontra, 2, 3 eta 6 hilabeteko epealdietarako.
 - o Merkatu Antolatuen etorkizunak gurutzatzearen azken prezioaren kaptura, 3 hilabeteko Euribor-aren gainean, hurrengo 8 muga eguneratzeetarako (hurbilena kontatu barik).
 - o *Swaps* tipokoak kapturatzea 6 hilabeteko Euribor-aren kontra, 2 urtetik 50 urtera arteko epealdirako.
 - o Aurreko interes-tasa iturri desberdinetan oinarrituta, egun 1etik 50 urte arteko interes-tasaren kurba lortzen da, Euroaren gainean.
 - o Prezioa (tasa finkoa) IRSren alderdi biak berdintzean lortzen da, eskatutako edozein epealdirarako.
 - o Lortutako prezioari egoki irizten dizkion doiketak egin diezazkioke erakundeak.
- *Interest Rate Swaps* Dibisan
 - o Erakundeak prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat:
 - Barnean, Euro (EUR), Dolar (USD) eta Libra (GBP) dibisetarako.
 - Beste kontra-partida, broker eta finantza-plataforma batzuen bidez, dibisa guztietarako.
 - o Erakundeak barnean kotizatzen baditu prezioak, prozedura honako hau izango da:
 - Banku arteko gordailuen eskaintza eta eskaera prezioen kaptura, hilabete 1 arteko epealdirako, Dolar (USD) eta Libra (GBP) dibisan.
 - IRS kurbaren eskaintza eta eskaera prezioen kaptura, 3 hilabete arteko epealdirako.
 - Etorkizun kateatuzkoen eskaintza eta eskaera prezioen kaptura, 3 hilabetera Merkatu Antolatuetan, Dolar (USD) eta Libra (GBP) dibisan, 2-5, 5-8, 8-11, ... eta 21-24 hilabeteko epealdietarako.
 - IRS kurba lortzea (eskaintza eta eskaera), hilabete 1erako Liborraren kontra, 24 hilabete epealdira arte, dibisa bakoitzerako.
 - Erakundeak eskuz egin ditzake aldaketak lortutako interes-tasetan.

Kutxabankek prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat, horiek hala eskatuta.

3.7.6. FX SWAP

3.7.6.1. Negoziazio eta betearaztezentroak

Bezeroek FX *Swap* gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabanke, honakoa Negoziazio zentro hauetan:

- Kreditu-erakundeak.
- Erakundeak baimendutako merkatubrokerrak.

3.7.6.2. Negoziazio zentroak hautatzekopolitika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrekin jardun dezake Kutxabanke.

3.7.6.3. Betearazte hoberenaren politika

FX *Swap* direlakoei buruzko bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak.

FX *Swap* bezeroak emandako aginduen betearazte hobereana dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskain diezaikeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatua.

3.7.6.4. Prezioak eratzeko politika.

Erakundeak prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat:

- Horien kotizazioa eskatuta beste Kreditu-erakunde batzuei edo beste broker baimendubatzuei.
- Horien gaineko galdera eginez beste finantza-plataforma batzuei, esaterako, *Reuters* edo *Bloomberg*.

Lortutako prezioari egoki irizten zaizkien doiketak egingo zaizkio

Kutxabanke prezioak kotizatzen ditu bezeroentzat, horiek hala eskatuta.

3.7.7. CROSS CURRENCY SWAPS

3.7.7.1. Negoziazio eta betearaztezentroak

Bezeroek *Cross Currency Swap* gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabanke, honakoa Negoziazio zentro hauetan:

- Kreditu-erakundeak.
- Erakundeak baimendutako merkatubrokerrak.

3.7.7.2. Negoziazio zentroak hautatzekopolitika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrekin jardun dezake Kutxabanke.

3.7.7.3. Betearazte hoberenaren politika

Cross Currency Swap direlakoei buruzko bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak.

Cross Currency Swap bezeroak emandako aginduen betearazte hobereana dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskain diezaikeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatu.

3.7.7.4. Prezioak eratzeko politika.

Bere prezioak bezeroei kotizatzeko honako prozedura hauek erabiltzen ditu:

- *Call Money Swaps* tipoak kapturatzea (eskaintza eta eskaera) Eoniaren kontra, egun 1eko, aste 1eko eta hilabete 1eko epetarako.
- *Swaps* tipoak kapturatzea (eskaintza eta eskaera) hilabete 1erako Euribor-aren kontra euro dibisarako, eta hilabete 1eko Libor-aren kontra Dolar dibisa eta Libra dibisarako, 2, 3 eta 6 hilabeteko epealdietarako, hurrenez hurren.
- *Liffe* Merkatuko etorkizunak gurutzatzearen azken prezioaren kaptura, 3 hilabeteko Euribor-aren gainean Euro dibisarako eta 3 hilabeterako Libor-aren gainean Dolar dibisarako, hurrengo muga eguneratzeetarako, hurbilena kontatu barik.
- *Swaps* tipoak kapturatzea 6 hilabeteko Euribor-aren kontra Euro dibisarako eta 6 hilabeteko Libor-aren kontra Dolar eta Libra dibisetarako, 2 urtetik 50 urtera arteko epealdirako.
- *Cross currency Swapeko* dibisa parearen spot truke-tasaren kaptura .
- Egundetik 50 urte arteko interes-tasaren kurba lortzen da, dibisa bakoitzerako.
- Eskatutako edozein epealdirako *Cross currency Swapeko* alderdi biak berdinduta lortzen da prezioa.
- Lortutako prezioari egoki irizten dizkion doiketak egin diezazkioke erakundeak.

3.7.8. CREDIT DEFAULT SWAPS

3.7.8.1. Negoziazio eta betearazte zentroak

Bezeroek *Credit Default Swap* gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabanke, honakoa Negoziazio zentro hauetan:

- Kreditu-erakundeak.
- Erakundeak baimendutako merkatubrokerrak.

3.7.8.2. Negoziazio zentroak hautatzeko politika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrekin jardun dezake Kutxabanke.

3.7.8.3. Betearazte hoberenaren politika

Bezeroek kontra-alderdi hautagarri sailkapena izan beharkodute.

Credit Default Swaps kontratazioan betearazte hoberena izan dela ulertuko da (CDS), CDSren alderdi kontratatzaileen arteko adostasuna, eragiketaren izaera, prezio kotizatua, nominala, azpikoa eta epealdiari dagokionez.

3.7.8.4. Prezioak eratzeko politika

CDS prezioen kotizazioa, Diruzaintza salak erabilitako euskarrien bidez horiek kontsultatuz egingo da, eta honako hauek izan litezke:

- Bloomberg
- Kontaktu zuzena kontra-alderdi hautagarriarekin.

Lortutako prezioari egoki irizten zaizkien doiketakegingo zaizkio

3.7.9. COMMODITIES GAINEN OTC ERATORRIAK

3.7.9.1. Negoziazio eta betearazte zentroak

Bezeroek *Commodities* gaineko OTC Eratorrien gainean eskatzen dituzten eragiketen kontra-alderdia lor dezake Kutxabanke, honakoa Negoziazio zentro hauetan:

- Kreditu-erakundeak.
- Erakundeak baimendutako merkatu brokerrak.

3.7.9.2. Negoziazio zentroak hautatzeko politika

Egoitza paradisu fiskaletan ez duen edozein Kreditu Erakunde edo Brokerrekin jardun dezake Kutxabanke.

3.7.9.3. Betearazte hoberenaren politika

Commodities gaineko OTC eratorriak direlako buruzko bezeroen aginduen kontra-alderdi dihardu Erakundeak.

Commodities gaineko OTC eratorriak bezeroak emandako aginduen betearazte hoberena dela ulertzen da, Erakundeak bere bezeroei eskain diezaiekeen prezio onena, Erakundeak hartutako prezio kotizazio politikan oinarrituta kalkulatu.

3.7.9.4. Prezioak eratzeko politika.

Bezeroekiko *back to back* eragiketarako baino ez ditu burutzen Erakundeak eragiketa hauek.

Zentzu honetan, Erakundeak prezioen kotizazioa eskatzeari ekiten dio, Kreditu-erakunde bidez edo Broker baimenduen bidez. Prezio horiek bezeroei helaraziko zaizkie, lortutako prezioari egoki irizitako doiketakegin ostean.

Bezeroak eskaintako baldintzak onartzen dituzenean, Erakundearen eta bezeroaren arteko eragiketa itxiko du erakundeak, baita Erakundea eta kontra-alderdiaren artekoa ere.

3.8. Inbertsio fondoak

Mota honetako produktuetarako Kutxabank agindu igorlea da.

3.8.1. Kutxabank Gestión-en Inbertsio fondoak

Kutxabankek Kutxabank Gestión SGIC-ri igortzen dizkio bere bezeroen harpidetza/itzulketa aginduak. Erakunde horrekin berak kudeatzen dituen fondoak merkaturatzeko kontratua du.

Kasu honetan, Kutxabank Gestión da agindua betearazi dezakeen erakunde bakarra, ondorioz, betearazte onena lortuko da bide horretatik. Ez da bidezkoa aurre-hautaketarik egitea.

3.8.2. Beste kudeatzaile batzuek kudeatzen dituzten inbertsio fondoak

Kutxabankek bitartekari bat edo batzuk hautatuko ditu, haiek betearaz ditzaten aipatutako aginduak.

Bitartekarien hautaketa eta berrikusketari dagokienez, Errenta Aldakorreko aginduetarako aurreikusitakoa hartuko da aintzat.

4. Bezeroei politikaren inguruko alderdien berri emateko prozedura

Kutxabankek aginduak gauzatu baino lehen jakinarazi beharko dizkie bezero xehekariei Politikaren inguruko alderirik aipagarrienak, bereziki honako xehetasun hauek argituz:

- Betearazte-zentroak edo artekariak hautatzeko aintzat hartu den faktore bakoitzari eman zaion garrantzi erlatiboa eta nola ebatzi den.
- Betearazte-zentroen eta artekarien behin betiko zerrenda.
- Bezeroen berriazko jarraibideek Betearazterik Onenerako Politikaren betetzean izan dezaketen eraginari buruzko ohartarazpena.

Informazioa honako bi modu hauetan emango da:

Y Laburturik, bezero xehekariek, aginduak gauzatu aurretik, sinatuko duten Oinarrizko Kontratuaren eranskin gisa. Bezero profesionalek, berriz, euren sailkapenaren berri emateko bidaltzen zaien gutunean jasoko dute bertsio laburtu hori. Laburpenean, betearazte-zentroak edo artekariak hautatzeko aintzat hartu diren faktoreak, erabiltzen diren betearazte-zentroen eta artekarien zerrenda, berriazko jarraibideei buruzko ohartarazpena eta Politikaren helburuak azalduko dira.

Y Politikaren testu osoa, bezeroak eskatuz gero; horren barruan, hautaketa egiteko erabilitako alderdi kualitatiboak eta Kutxabankek egindako azterketaren ondorioztapenak ere agertuko dira. Politikaren bertsio luze hori bezeroak eskatzen duenean emango zaio.

Politikan egin litezkeen aldaketak derrigor jakinaraziko zaizkie Kutxabanken bezeroei. Bezero xehekariei Esparru Kontratuaren eranskin eguneratua igorriko die Kutxabankek, bertan Politikaren bertsio laburtua egongo delarik jasota, eta bezero profesionalei, aldiz, Politikan egindako aldaketen berri emateko jakinarazpena bidaliko die. Informazio hori posta arruntez edo posta elektronikoz.

5. Bezeroak politika onar dezan lortzea

LMVren 3. ataleko 79 sexies artikuluari jarraituz, Kutxabankek Politikarekiko aurreiazko onespena lortu beharko du berak aginduen betearazle dihardueneko finantza-tresnekiko eragiketak egiten dituzten bezeroengandik.

Onarpena tazitua izango da, Kutxabankek internalizatzaille sistematiko irizteko baldintzak betetzen ez dituzenez, ez baitago bezeroaren berariazko onarpena lortu beharrik. Informazioa jaso ondoren bezeroa eragiketak egiten hastea nahikoa izango da politikaren onarpena lortu egin dela ulertzeko.

6. Politika bete egiten dela jagoteko ikuskapen eta kontroleko prozedurak

LMVren 3. ataleko 79 sexies eta Inbertsio Zerbitzuen Enpresei buruzko EDko 78.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Kutxabankek aldizka egiaztatu beharko ditu erabakitako politikaren eraginkortasuna eta hautatutako erakundeen betearazte-kalitatea. Halaber, Politikaren berrikuspena ere egin beharko du urtean behin, baita Politika honetan eragina izan dezakeen aldaketaren bat gertatzen den guztietan ere.

6.1. Ikuskapen eta kontroleko prozeduren helmena eta berrikuspenaren arduradunak

Ikuskapena eta kontrola burutzeko, honako bi prozedura hauek erabiltzen dira:

1. Operazioak eta Diruzaintza arloek aurretiaz definitutako Politika ebaluatzea:

- Hautatutako balizko betearazte-zentroen eta artekarien zerrenda berrikusi: aurre hautaketan erabilitako irizpideak (2.1.a atala) berrikusita, zerrenda baliozkotu egingo da, edo aldatu, aipatutako irizpideak aldatu badira edo merkatuan artekari edo zentro berriak agertuz gero.
- Aurreko azterketaren ondorioz hautatutako zentroen zerrenda berrikusi: tresna bakoitzarekin loturiko aginduen betearazterako, zer betearazte-zentro erabiliko den /diren ebatziko da.

2. Dagoeneko definitutako eta Araudia Betetzeko arloak ezarritako betearazte-politika bete egiten dela egiaztatzea:

- Politikan kontrol-mekanismoak egon badaudela egiaztatuko da. Definitutako kontrolak daudela, ezarri egin direla eta eraginkorrak direla ziurtatu beharko da.
- Urtean zehar, definitutako eta ezarritako Politika bete egiten dela egiaztatuko da, betearazterik onenerako prozesuen betetzea eta prozesu horiekin loturiko kontrolena ikuskatuz.

Xedea ez da agindu bakoitza banaka egiaztatzea, kontrolek ondo funtzionatzen dutela ziurtatzeko prozesu bat badagoela eta aldizka ikuskatzen dela frogatzea baizik.

Ikuskapen hori erakundetik kanpoko hirugarren batek egiteko aukera ere aztertu liteke, betiere, ikuskapen eta kontroleko beharrezko prozedura guztiak burutu egin direla frogatuz.

6.2. Berrikuspenaren euskarria eta *Reportinga*

Politikaren berrikusketatik lortutako emaitzak biltzen duen txostena Barne Auditoretza eta Kontrol Batzordeari aurkeztuko zaio, eta Administrazio Kontseiluari helaraziko zaio, ezagut dezan.

7. Bezeroak eskatuz gero, aginduen betearaztea frogatzeari begira aintzat hartu beharreko printzipioak

Kutxabankek, aginduen betearazte gisa jarduten duenean, aginduak Betearazterik Onena lortzeko ezarritako Politikari jarraituz burutu direla frogatuko die bere bezeroei, horiek hala eskatuz gero; horretarako, Politika honetan betearazte-prozedurari buruz zehaztutako printzipioak eta alderdiak bete egin direla erakutsi beharko die.

Honako alderdi hauek frogatuko ditu Kutxabankek:

- Eragiketa, aukera guztiak aztertuta politikan zehaztutako artekariari edo betearazte-zentroari bideratu zaiola, kudeatzeko.
- Eragiketa bakoitzerako, dokumentaturiko prozesu bat dagoela, eta arriskuak eta kontrol aringarriak identifikatuta daudela.
- Kasu guztietan, kontrolak taxutu, ezarri eta egiaztatu egin direla.

8. Politika honen berrikuspena eta eguneratzea

Inbertsio Zerbitzuen Enpresei buruzko 217/2008 EDko 78. artikulua xedatzen duenez, berrikuspena gutxienez urtean behin egin behar da, baina maiztasun handiagoz ere egin liteke, politikan eragina duen aldaketa garrantzitsuren batjazoz gero.

Hona hemen “aldaketa garrantzitsu eta materialtzat” har litezkeen egoeretako batzuk:

- Aukeratutako artekarien edo zentroen zerbitzu-prestazioan akatsak egotea.
- Zerbitzuaren prestazioaren inguruan, bezeroen erreklamazio ugari egotea.
- Zentroek edo artekariak aplikatzen dituzten baldintza ekonomikoak aldatzea.
- Merkatuan zentro edo artekari berriak agertzea.
- Politikan sartutako zentro edo artekarietako baten batek jarduera uztea

Aginduak darabiltzaten eta beraiek betearazteaz eta izapidetzeaz arduratzen diren sailek Araudia Betetzeko Arloari jakinarazi beharko dizkiote, bai Politikaren edukiari, bai deskribatutako prozedurei dagokienez, euren ardurapeko esparruan egin beharrekotzat jotzen dituzten aldaketak ere. Araudia Betetzeko Arloak, aldaketa horiek sartzear gain, arauetan gertatutako aldaketengatik egin behar litezkeen eguneratzeak kudeatuko ditu.

Araudia Betetzeko Arloak Administrazio Kontseiluari helaraziko dio Politika eguneratua, azken honek berretsi dezan.